

BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA ABIAN JARTZEKO MINTEGIA

Bizkaiko Hirugarren Sektoraren Behatokia abian jarri aurretiko hilabeteetan, behatokiko taldeak zenbait prestaketa-lan garatu zituen.

Abian jartzeko asmoz, erakunde eta sareekin egindako mintegia behatokiko hiru bazkideek batera garatutako ekintzetako bat izan zen.

Hirugarren sektoreko erakundeek behatokiaren diseinuan parte hartzea eta, batez ere, hirugarren sektoreari buruz egindako hausnarketa erkatzea izan zuen helburu.

Mintegia gutxi gorabehera bi ordu iraun zuten bi saiotan garatu zen. Mintegia prestatzeko, gainera, zenbait agiri eta hausnarketarako gidoi txikia eman ziren aldez aurretik:

Lehenengo saioa. 2007ko otsailaren 21ean, 12:00etatik 14:00etara.

- 1.- **HSBren aurkezpena:** xedea, balioak, zerbitzuak, jarduerak eta erakundeek parte hartzeko sistemak (zuzenekoak eta on line).
- 2.- **Hirugarren sektorea** maila teorikoari eta eragileari begira **zedarritzeko sarrera**. Besteak beste, Bizkaiko Hirugarren Sektorari buruzko Liburu Zuria egitea zen helburua. Talde-lana.

Bigarren saioa. 2007ko otsailaren 28an, 12:00etatik 14:00etara.

- 3.- **Hirugarren sektorea zedarritzeko prozesua.** Talde-lanaren jarraipena, hausnarketan azalpena eta eztabaida.
- 4.- **Behatokiaren aurretiko diseinuan aurreikusitako zerbitzuen, jardueren eta partaidetza-sistemen balioespina eta proposamenak** eta zenbait jardueraren bidez jorratu beharreko edukien azalpena (horra hor jardunaldiak, mintegiak, ikerketa...).

Sektoreko erakundeak eta sareak mintegira gonbidatuta egon ziren, eta euren agerpena adierazgarria iruditu zitzaigun zenbait arrazoren ondorioz (tamaina, arloa, antzeko proiektuetan izandako ibilbidea...).

Hain zuzen ere, honako hauexek parte hartu zuten mintegian: REAS, EAPN, Euskadiko GGKE-en Koordinakundea, Cáritas, Bidegintza Elkartea, FEVAS, Goiztiri, Gorabide, Gizardatz, LARES Euskadi, Elkarbanatuz eta Zubietxe Elkartea.

Era berean, honako hauexek ere bertaratu ziren:

- Hirugarren Sektoraren Behatokiko hiru bazkideak: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila, BBK-Gizartekintza eta EDE Fundazioa.
- Behatokiko talde teknikoa.

MINTEGIKO OHARRAK BEHATOKIAREN DISEINUARI BURUZ

Mintegiko bi saioen ostean, argi dago bertaratutako en iritzia ona izan zela Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokitako proiektuari dagokionez.

Batez ere, nabarmendu egin behar da behatokia "independentea" izan behar zela adierazi zutela, hau da, bere helburua hirugarren sektorea izan behar zela eta erakundeek behatokitako jardueretan parte hartu behar zutela. Nolanahi ere, ikuspegi bat baino gehiago hartu behar zuen kontuan (zenbait eragilerena) azterketa egiteko orduan, eta, horrez gain, sektoretik bertatik zertxobait aldentu behar dela, egoera eta ekarpena aztertze orduan eta hobekuntzarako proposamenak egiteko orduan.

Bertaratutakoek behatokitako proiektuaren inguruko interesa eta ikusmina azaldu zituzten, eta sustatzen ziren beste ekimen eta lan-saio batzuetan parte hartzeko prest zeudela adierazi zuten, behatokitako jardunaren ebaluazioan eta antolamenduan esku hartu ahal izateko.

Horri dagokionez, 2007an garatu beharreko jardueri buruzko ekarpenak egiteko aukera eskaini bazitzaie ere, bertaratutakoek ustez goizegi zen ekarpenak egiteko, oraindik ez zutelako behar den moduan ezagutzen behatokiaren ezaugarriak zeintzuk ziren eta nola jardungo zuen.

Hori dela eta, zenbait hilabetez jardun ondoren (udaren ostean, esaterako) beste lan-saio bat egitekotan geratu ginen. Bertan, gainera, egindako jardueri buruzko txostena aurkeztu zitekeen eta erakundeek zein sareei eskatu ahal zitzaie antolamenduari buruzko ekarpenak egiteko.

Behatokiak egin zitzaieen ekarpenei begira, bertaratutakoek egindako zenbait hausnarketa Bizkaiko hirugarren sektorearen etorkizuneko erronkei buruzkoak izan ziren.

Hain zuzen ere, azpimarratu egin zen sektorea egituratzeko sareen arteko harremanetan (sareen sarean) aurrera egin beharra dagoela eta behatokia liderra izan zitekeela gai horretan eta sektorearentzat interesgarriak diren beste gai batzuetan.

Alde horretatik, behatokiak argitu egin zuen bere zereginak ez duela inolako zerikusirik sektoreko sareen zereginarekin eta gai honi zein beste gai batzuei buruzko ikerketa, hausnarketa eta eztabaida sustatu ditzakeela, baina berak garatzen dituen jardueren barruan egon liratekeela beti. Horretarako, bere "independentziari" eutsiko dio eta ez da inoiz liderra izango sektoreko sareak egituratzeko orduan, sareei euren dagokielako eginkizun hori.

MINTEGIKO OHARRAK BEHATOKIAREN AZALPENARI BURUZ

Gauzatutako ekimenak...

Batetik, parte-hartzaile gehienak kezkatuta daude ez dutelako nahi azalpenak erregistratuta ez dauden erakundeak, egitura formal eta juridikorik ez duten erakundeak... kanpoan uztea. Izan ere, zeresan adierazgarria daukate hirugarren sektoreko errealitatean (horra hor 0,7 plataforma edo antzeko gizarte-mugimenduak). Dena dela, oro har, irizpidea ontzat hartzen da, azalpena eraginkorra izan behar delako eta nolabaiteko zehaztasuna eman behar zaiolako Liburu Zuriaren proiektuari.

Hala ere, HSBko kideek azalpenaren bi bertsio desberdin onartzea proposatu zuten (elkarren menpekoak izan arren). Batetik, sektoreak sektoreari buruz daukan ideia intersubjektibotik hurbilago dagoen bertsio teorikoa egin daiteke (desberdintasun ideologikoak alde batera utzita, ez direlako sakon eztabaidatu eta gaur egun ez daudelako ebatzita). Irizpide honi dagokionez, bertsio horretan erakunde moduan eratuta egon arren hirugarren sektoreko erakundeak elkartu eta sektorerako funtsezko jarduerak garatzen duten erakundeak ere hartuko lirateke kontuan (hau da, azalpen honetan, behatokitako "erabiltzaileak" izan daitezkeen erakunde guztiak hartuko lirateke kontuan). Bestetik, azalpen eragilea edukiko genuke, eta ahalik eta irizpide objektiboetan oinarrituta egongo litzateke. Horri esker, Liburu Zuria bezalako proiektua garatu liteke, azalpen teorikoan onartutako zenbait erakunde azalpen eragileago honetatik kanpo geratu arren eta, horren ondorioz, hasierako datu-bilketatik eta azterketa zehatzetik kanpo geratu arren (hala ere, horrek ez du esan nahi beste era bateko azterketa batzuetan kontuan hartuko ez

ditugunik). Edonola ere, badirudi jende guztiak nahi duela bi azalpenen arteko lotura ahalik eta estuena izatea.

Era berean, irizpide hori osatu egin behar dela adierazten da (legezko erakunde juridiko moduan eratuta egotea). Horrez gain, behar den moduan eratuta egon arren, “benetako” jarduerarik ez duten erakundeak ere kanpoan utzi behar direla adierazten da.

ADIERAZLEAK

A) Legeztatutako egitura formalerako:

- **erregistroko inskripzioa**

B) Jardueraren azterketarako:

- **erregistro ofizialen eta erregistro “osagarrien arteko antzekotasunak HSBko taldeak azaldu egin zuen erregistro ofizialen mugak konpentsatzeko asmoa zuela, helburua erregistroen alderdi “bizia” aurkitzea zela, lanean zehaztasun zientifikorik galdu gabe.**
- **erakundeentzako dirulaguntzen ebazpena HSBko taldeak azaldu egin zuen adierazle hau erabiltzean baliabideak inbertitu behar zirenez beharbada hobe zela lehenengo Liburu Zurian ez sartzea. Hala ere, egokia iruditzen zitzaion adierazle hori eta beste batzuk proiektuaren etorkizuneko faseetan kontuan hartzea.**

Gizarte zibilarena...

Irizpide argia denez, aho batez erabaki zen hirugarren sektoreko erakundeen ezaugarri bereizgarria izan behar zela.

ADIERAZLEAK

Honako adierazle hau aipatu zen:

- **sortzaileak edo bazkide sortzaileak estatutuetan**

Nolanahi ere, erraz lortzen ez den informazioa da (hasiera batean, behintzat, unibertsoa zehazteko orduan).

Irizpide honetako adierazleak hurrengo irizpidean ere agertu daitezke. Era berean, irizpide hau eta hurrengoa ere irizpide bakarra izan daitezke.

Kudeatzeko autonomiaduna eta independentea...

HSBren azalpena egiteko proposamenean, honako ñabardura hau azaltzen da: “administrazio publikoari eta enpresei dagokienez”. Antza denez, parte-hartzaile guztiak bat datoz ideia horrekin. Hala ere, alderdi politikoen eta sindikatuen ñabarduran ere hartu behar da kontuan? Eta eliza?

Eztabaidan, mintegiko parte-hartzaileak bat datoz alderdi politikoei eta sindikatuei dagokienez independentzia eduki behar duela adieraztean. Bestetik, elizarekiko independentzia jartzen dute zalantzan (batez ere, Bizkaiko hirugarren sektoreko erakunde askoren jatorria elizarekin lotuta dagoelako). Gaia, beraz, ebatzi gabe geratu zen alderdi zehatz horretan.

Era berean, proposatu egin zen irizpideak ez dituela kanpoan utzi behar hirugarren sektorearen kontrolpean dauden erakundeak (horra hor laneratzeko enpresak), beti ere azalpenean zehaztutako baldintzak betetzen badituzte. Ideia horretatik aurrera, beharbada ñabarduraren zati bat hartu beharko da kontuan irizpidearen testuan, argi eta garbi uzteko garrantzitsuena ez dela erakunde autonomia izatea, hirugarren sektorekoa ez den erakundearen menpe ez egotea baino.

Dirudenez, azalpenean zehaztutako baldintzak bete arren “gustuko ez ditugun” zenbait erakunde daude guztien buruan. “Begi onez ikusten ez ditugunez”, hobe izango litzateke hirugarren sektorekotzat ez hartzea (hona hemen bertan emandako zenbait adibide: McDonalds Fundazioa, ADECCO Fundazioa...). Nolanahi ere, ez zen erakundeok kanpoan uzteko irizpide argirik lortu, eta kanpoan uzteko aukerari buruzko eztabaida zabalik uztea proposatzen dute askok.

Era berean, ez zegoen argi denak kanpoan utzi behar ziren, batzuk kanpoan utzi behar ziren eta beste batzuk ez... Zenbait galdera sortu ziren: Berdinak dira denak? Bereizi egin beharko genituzke? Holakorik egin daiteke? Batzuen jarduera ez da gurearen antzekoa? Azken batean, hirugarren sektorekoak ez diren erakundeen kontrolpean dauden erakunde instrumentalak ditugu hizpide, eta, nolabait esateko, ez dira hiritarren ekimen asketik sortzen. Dena dela, batzuen jarduera beste batzuena baino neurri handiagoan onartzen da (zuzenean esku hartzen duten ala ez edo beste erakunde batzuen ekintza sustatzen duten ala ez kontuan hartuta eta dirulaguntzak (mezenasgoa) baino zerbait gehiago eskaintzen duten ala ez kontuan hartuta).

Zalantza horien arabera, hirugarren sektoreko erakundeek eztabaida ideologikoa heldu ondoren, badirudi etorkizunean azalpenaren bertsio teorikoak ñabardura gehiago eduki ditzakeela eta, azken batean, gai horien inguruko adostasuna lortu dezakeela, gaur egungo egoeraren aldean.

Eztabaidaren puntu honetan, zenbait hausnarketa sortzen dira honelako erakundeei buruz: autoenplegua sortzen duten erakundeak, sekten, talde nazien... helburuak sustatzen dituzten erakundeak, bazkideei eskainitakoa beste jarduerarik ez duten erakundeak... Hausnarketa horiek guztiak, ordea, aurrerago jorratuko ditugu.

ADIERAZLEAK

Eztabaida eta zalantza gehien sortzen dituen irizpidea izan arren, badirudi nolabaiteko adostasuna lortu dela hirugarren sektorekoak ez diren erakundeetan kudeaketa-autonomia eta independentzia zedarritzeko, ahalik eta irizpide objektiboak kontuan hartuta:

- hirugarren sektorekoak ez diren erakundeetako ordezkarien proportzioa gobernu-organotan (gehiengoa = menpetasuna).

Aldi berean, honako hau aurreko irizpidearen osgarri izan beharko litzateke:

- estatutuen helburuak (independentziaren arabera, erakundearen helburuak ez dira bertako gobernu-organoko erakundeen xedeak izango, desberdinak baizik).

Nolanahi ere, horren inguruko beste hausnarketa bat sortzen da, helburuak interpretatzea arriskutsua izan daitekeelako, adierazle subjektiboa izatean.

Hausnarketa horretan, HSBko taldeak azpimarratu egin zuen oso garrantzitsua zela “lehen mailako” adierazleak (informazio-iturriak ez du inolako zerikusirik erakundearekin) eta “bigarren mailakoak” (informazio-iturria erakunde bera denez, derrigorrean eduki behar da harremana berarekin) bereiztea. Lehenengoak erabilgarriak dira unibertsoa zehazteko; eta bigarrenak, aztertutako datuak “helburu ez diren” datuen bitartez kutsatzen ez direla egiaztatzeko

Horiek horrela, oso kontuan hartu behar dugu atal honetan zehaztutako adierazleak “bigarren mailakoak” izango liratekeela (erakunde handien kasu zehaztetan izan ezik, lehen mailakoetarako behar besteko informazio baliotsua daukatelako –web orriak, prentsa...–).

Irabazi-asmorik gabekoa...

Eztabaidaren hasieran, “irabazi-asmoaren” kontzeptuaren zentzu erlatiboa aipatu zen, aurreko irizpideko hausnarketak kontuan hartuta... Zer neurritaraino ez du irabazi-asmorik irabazi-asmoa daukan erakundearen tresna hutsa den entitateak? (Eroskik ez du irabazi-asmorik, ala?). Berriro ere, zaila da instrumentaltasun hori antzematea. Beraz, bien bitartean, irizpidearen bertsio zorrotzagoa edo objektiboagoa hartzen da ontzat, hau da, posiblekin banatzerik ez duten erakundeek irabazi-asmorik ez dutela adierazten duen bertsioa.

ADIERAZLEAK

HSBko taldeak irudi juridikoen adierazlea erabiltzean abantailak zeudela azaldu zuen, batez ere, “lehen mailako” adierazlea delako.

- irudi juridikoa

HSB azaltzeko proposamenean egindako ñabarduran, honako hauexek hartu behar direla adierazten da: Elkartzeko Eskubidea arautzen duen 1/2002 Legearen arabera araututako elkarteak, fundazioak, gizarte-ekimenekoak diren kooperatibak eta merkataritza-sozietateak, laneratzeko enpresak direnean, besterik ez.

Ñabardura horren ondorioz, beste gai interesgarri baten eztabaida sortu zen: horren arabera, Gizardatz kanpoan geratuko litzateke, enpresa-elkartea delako eta ez delako 1/2002 Legearen arabera arautzen.

Nolanahi ere, argudiatu egin zen gizarte-mugimenduekin gertatzen den bezala hirugarren sektoreko erakundeen zati bat elkartu eta sektoreko errealitatean zeresan handia daukan erakunde hori azalpenaren bertsio teorikoan hartu daiteke kontuan (hausnarketaren lehen puntuan aipatu dugu), eta, aldi berean, ez dago bertsio eragilean eta Liburu Zurirako datuen bilketan zertan kontuan harturik.

Borondatezkoa...

Dirudenez, adostasuna argia zen, irizpide hau sektorearen ezaugarri bereizgarria zela adieraztean. Nolanahi ere, kontuan hartu beharreko zenbait kasu aipatu ziren: gizarte-ekimeneko kooperatibek eta laneratzeko enpresek (hirugarren sektorean nagusi diren gainerako irudi juridikoen aldean) ez dute boluntariorik eduki behar euren gobernu-organoeetan. Beraz, bi kasuetan, irizpidea ez litzateke bermatuta egongo hasiera batean.

Horren inguruko adostasun argirik lortu ez arren, aipatu egin behar da zenbait aukera sortu zirela horren ondorioz: irizpideari eustea eta erakundeekin harremanetan jarri arte itxarotea boluntariorik ez duten erakundeak kanpoan uzteko; irizpide hori azalpenetik kentzea; irizpidearen derrigorrezkotasuna eraldatzea erakundeak barruan sartzeko edo kanpoan uzteko orduan eta erakunde gehienen jardueraren "ezaugarria" dela onartzea; irizpidearen derrigorrezkotasunari eustea, baina ñabarduran kooperatibentzako eta laneratzeko enpresentzako salbuespena zehaztea (kasu batzuetan, azalpenaren testua nola geratuko litzatekeen pentsatu beharko litzateke, zehaztasunik galdu ez dezan).

ADIERAZLEAK

Aurreko irizpiderako erabilitako adierazlean oinarritutako bilketaren ondorioz lortutako informazioa da:

- irudi juridikoa

Gizartean esku hartzekoa...

Zabalegia eta anbiguoegia den "interes orokorra" barik, "gizarte-interesa" erabili behar da.

Zenbait ekarpenen arabera, gizarte-ekintzako hirugarren sektorea arlo txikiegia izan daiteke, GGKEak, kulturako erakundeak... kanpoan geratuko liratekeela kontuan hartuta. Aldi berean, ordea, ezinbestekoa izango litzateke HSBren azalpen-proposamenean aipatzen den gizarte-partaidetzaren kontzeptu zabalpean "gizarte-ikuspegia" ez ahaztea. Horrelaxe zehaztutako hirugarren sektorean, beraz, honako arlo hauek hartuko lirateke kontuan: gizarte-hezkuntzarena, gizarte-kirolarena, gizarte-kulturarena, gizarte-bizitegiarena, gizarte-osasunarena... "Gizarte-arloa" beti-beti kontuan hartu behar bada, erakunde osoan agertu behar bada eta mintegiak eskaintzen duen eztabaida-gunea mugatua dela kontuan hartzen badugu, badirudi zentzuzkoagoa dela "gizarte-arlokotzat" zer jotzen dugun argitzen jarraitzea. Kirola kontuan hartu behar da, guztia ez bada, "gizarte-arloarekin" zerikusia daukana, bai, behintzat. Dena dela, ez zen zehaztu zer zen kontuan hartu beharreko zati hori.

Bestetik, sekten, talde nazien... inguruko hausnarketari eutsi zitzaion, eta erakundeen kultura demokratikoarekin zerikusia zeukan irizpidea kontuan hartu zitekeela adierazi zen. Edonola ere, ez zen adierazle zehatzei buruzko ekarpenik egin. Gainera, badirudi berriro interpretatu beharko genituzkeela helburuak eta, horren ondorioz, subjektibotasunean erori gintezkeela. Izan ere, muga horietatik haratago joanez gero, interpretazioa egin beharko litzateke, legearen arabera ez dagoelako erakunde zehatz batzuk sortzerik (erakundeek ezin dituzte delitutzat hartutako helburuak eta baliabideak eduki, ezin dira paramilitarrak izan, ezin dute inor behartu elkarteak eratzeraz, bertan sartzera edo bertan geratzera...).

Badirudi parte-hartzaile guztiak bat zetozela erakunde "itxiez" hitz egin eta bazkideentzako jarduerak bakarrik antolatzen dituzten erakundeak kanpoan uzten dituen ñabardurarekin. Horren harira, proposamen berria sortu zen: bazkideen sarbidea kuota ekonomikoen bitartez mugatzen duten erakundeak kanpoan uzteko aukera. Beraz, Athletic, Bilbaína... kanpoan uzteko eskatu zen. Zentzuzkoa dirudi, baina irizpide hori erretiratuen etxeetan ere ezarri liteke, eta, hasiera, baliteke zentzu handiegirik ez izatea. Era berean, zalantzak sortu ziren, erakundeek sarbidea mugatu beharko luketela eta bazkideak ez diren hirugarrenentzako jarduerak antolatu beharko lituzketela adieraztean. Halakoetan, zer da lehentasunezkoa? Ez zen ondorio argirik lortu.

ADIERAZLEAK

Puntu honetan, ez zen berariazko aipamenik egin eta zentzuzkoa zirudien HSBren azalpen-proposamenean egindako ñabarduretan zehaztutako salbuespen-sistemari eustea.

Hori dela eta, "lehen mailarako" adierazlea aukeratu ezinik egotean, kanpoan geratzen ziren erakunde-mota zehatzen zerrenda egin genuen, irizpidean adierazitako ideiak kontuan hartuta (erakunde itxiak, gizarte-intereseko jarduerarik geratzen ez duten erakundeak...). Erakunde-mota zehatzen zerrendak ere ez zuen inolako zalantzarik sortu eztabaidan bertan.

"Bigarren mailan", honako honen inguruko galdera zuzenean egin behar omen zen:

- jarduera itxia edo irekia

Horrez gain, honako honi buruzko galdera ere egin behar zen:

- bazkidea izateko mugak

Oraindik, zehaztu egin beharko litzateke nola jakin jarduera gizarte-arlokoa den ala ez. Hala ere, horretarako, "gizarte-arloa" zer den argitu beharko litzateke lehendabizi.

Bizkaian...

Ez zen irizpidearen inguruko inolako eragozpenik jarri, baina zenbait oztopo aurreikusi behar ziren: erakunde askoren errealitatea ez dator bat lurralde historikoko egiturarekin, EAEko hiru lurraldeetan dihardutelako. Horren ondorioz, baliteke erakundeek zenbait datu banatuta ez edukitzea, daturik ez ematea...

Bestetik, egiaztatu egin zen lurraldeko GGKE guztiek jarduera dutela Bizkaian.

ADIERAZLEAK

Ez zen adierazleei buruzko ezer esan. Nolanahi ere, agerikoa zirudien erregistroa nahikoa izango zela egoitza non dagoen eta jarduera-eremua zein den zehazteko orduan.

- erregistroan agertzen diren helbidea eta jarduketa-eremua

Laburbilduta, bazirudien argazkia bera argia eta erraz antzemateko modukoa zela, baina mugak ezartzea are zailagoa zela.

Oso ulergarria da adostutako azalpena lortzeko zailtasunak egotea, oso egituratuta ez dagoen sektorearen gaur egungo egoera eta oraindik helduegia ez den eztabaida ideologikoa kontuan hartuta. Pentsa liteke gaur egun egindako edozein azalpen-proposamen etorkizunean aldatu ahal izango dela, hau da, azalpen ñabartuagoa erdiesten denean, hirugarren sektorean dihardutenean buruan marraztutako errealitatetik hurbilago dagoen azalpena lortzen denean, gaur egungo argazkian ez dagoelako inolaz ere irudikatzerik. Edonola ere, proposamen honek azalpenaren eraketan eskainitako hasierako urratsak balio handi-handiko abiapuntua dira.